OIER
GUILLAN
elkartasun
basatia

# Elkartasun basatia

Oier Guillan

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2013 Oier Guillan
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2013ko apirila
Edizio hau: 2013ko apirila

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

# ESAN GABE DOA

Minarena naiz zorionarena beste.

*Esan gabe doa*

Jendez beterik dagoen gutxiengo batekoa naiz.

*Esan gabe doa*

Beldurrarena naiz pozarena beste.
Diot. nintzen. Diot. nintzen. Diot. nintzen. A.

*Esan gabe doa*

Erbestearena naiz aberriarena beste.
Eskuak garbitu eta haiei so
diot: nor naiz hau.
Hanka lokartu ostean orratz batekin ziztatu
eta zera pentsatzen dut:
norena da nirea den min hau.
Edo:

zergatik du nire antza haur honek.

*(Isilunea).*

Zergatik dute nire antza alkandorek
Zergatik dute nire antza mesanotxeko liburuek
zergatik dute nire antza familia argazkiek
zergatik dute nire antza eltxoek
zergatik dute nire antza etxeko zapatilek
zergatik dute nire antza maite ditudan pertsonek
zergatik dute nire antza nire antzik ez dutenek.

*Esan gabe doa*

Lekuz mugitzen den airea da denbora.

*Esan gabe doa*

BELDURRA airea IRAULTZA airea GEZURRA airea
BERUNA airea BIZITZA airea ZARATA airea
GARUNA airea DENBORA airea GARENA airea
GINENA airea HIZKUNTZA airea AHOTSA airea

*Esan gabe doa*

A.

*Esan gabe doa*

Mmm.

*(Isilunea).*

Nggsssb.

*(Isilunea).*

Jjjjsssssbba.

*(Isilunea).*

*Esan gabe doa*

Jendea naiz, jendea ez naizenean ere.
Familia naiz, familia ez naizenean ere.
Herria naiz, herria ez naizenean ere.

*Esan gabe doa*

Arrotza naiz, arrotza ez naizenean ere.
Mamua naiz, mamua ez naizenean ere.
Manikia naiz, manikia ez naizenean ere.
Bufoia naiz, bufoia ez naizenean ere.
Normala naiz, normala ez naizenean ere.

*(Isilunea).*

Minarena naiz.

*Esan gabe doa*

Oldea naiz, oldea ez naizenean ere.
Lotzeko aske izan nahi duen izen bat.
Hurrengo hitzordu iraultzailea bermatzearren
hilabete amaierara iristeko beharrean den ahoa.
Makurbilisa, zikoitzustela, erraitsua, buruberoa,
isilozena, eskulerdea, bihotzokela, zangolistorra.
Bizarrak egunero eraldatzen duen betiko bera.
Zakilzuloari begira «nortzuk dira horiek» galdetzen duena.
Egunero esnatu eta mundu arrotz bat topatzen duen hura.

Gauero lokartu eta mundu arrotz baten beldur den hori.
Lur honetakoa naiz bertan egiten dudalako lo.
Lur honetakoa naiz aire honek mintzo nauelako.
Lurrik gabe ez dago airerik.
Airerik gabe ez nago ni.

*Esan gabe doa*

Haiek naiz gu naizenean ere.
Lurrikara baten beldur esnatzen den itsua.
Bizirauteko pilulak behar dituen edonor.
Arnasaren beldur den hildakoa.
zu. ni. zu. ni. Haiek. gu. ni. zu.
Maitatzeko beldur den poeta.
Superwoman izatea deliberatu duen etxegizona.
Iraultza inori esan gabe egiten duen zalantzatia.
«Maita nazazue, kabroi alaenak, maita nazazue» dioena.
Negar egiten duen lorazain alergiaduna.
Politgizena, edersudurra, librezidorra, hankabustia, erdiliraina, zorionkeriaz blai dagoena.

*Esan gabe doa*

Ahanzturarena naiz oroimenarena beste.

*Esan gabe doa*

Zer da hau.
Nork diot.
Zertarako bu.
Zergatik kha.
un. an.
O.

Minarena naiz zorionarena beste.
Minarena naiz zorionarena beste.

O.

*Esan gabe doa*

Eguna beti hasten da ni gabe.
Badira egutegietan azaltzen ez diren zaratak.
Ileak topatzen ditut espero ez dudan lekuetan.
Neure ahotsa grabatu ostean ez dakit nor naizen.
Argazkietan ezagutzen ez dudan begirada bat dut.

Nire lagun guztiek gordetzen dituzte nitaz
nik oroitzen ez ditudan gauzak:
esandako eskuak,
keinuak,
zorneak,
promesak,
mozkorraldiak.
Neure buruaz ahaztu dudan guztia naiz,
eta agian oroitzen dudana da ez naizena.
Ez dakit nor noan.
Ez dakit nora diodan noiz.
Eta hunkitzen naiz hunkitzen den norbait
hunkituta ikustean,
hunkitzen naiz hunkitzen den norbait
hunkituta ikustean hunkitu dela ikustean.
Edertasuna arriskutsua iruditzen zait
itxaropena sortzen duelako.
Eta goiz batzuetan ni neu
polita sentitzen naiz
eta beste goiz batzuetan ez.
Batzuetan nire begirada sexia da
eta beste batzuetan ez,
eta batzuetan fuck eta besteetan iau,
eta batzuetan ieup eta besteetan zkark.

*Esan gabe doa*

Minarena naiz zorionarena beste.
Jendez beterik dagoen gutxiengo batekoa naiz.

# IDENTITATEA EULIARI AZALDUA

# LUR HAU

Lur hau
zeinari esaten diogun herria

hitz bakarrean kabitzen den arren
izateko hizkuntza oso bat
behar duen orubea

ez dakit zergatik esaten diogun lur
airez osatua denean

airez eta
hatsez
ahotsez
ezkutatzen ez diren
berbez

lur hau
zeinari esaten diogun herria

da

arnasten nauena

# AITONAREN HORTZAK

Aitonaren hortzak sartu ditut ahoan,
masailezurra hanpatu,
jakin zer sentitzen den
norberarena ez den aireak
ordeak higatzen dituenean,
sumatu hitzak hutsuneetatik pasatzen
haginen hobiak bultzatzen
lokietan mina sentitzeraino.
Saiatu bilobaren izena ahoskatzen,
berdin dio osteko lantuak,
makulua dut xede.

Ordezko aho baten zaporea,
ugerra ere ukatu zaion adina,
hortzik gabeko eskeleto batek
lukeen itxuraz galdezka,
ezin naiz hainbeste biluztu.
Begiak mihian hondoratzen zaizkit bestela,
dena naiz musu eta **ibi.**

Lurralde bigun bat ahoska nezake

besotik helduta,
kexu zama eta oroimen,
ospitaleko leihora gerturatu
hortzen zuria gorputz osora barreiatua duen gizona,
neure ile ikatz
kobabegi
erbeste azal oliba honetan
makulu edo ezten.

Aitonaren hortzak jarri ditut ahoan,
inoiz ezer gertatuz gero
jakin dezaten nor naizen.

# HAN

han dagoena dakit
oroitzen ez dudanean ere

han dagoena dakite
nire azal gorriak
eta ile beltzak

han dagoena daki
oroitzen ez dudanak
etxe bati teilatua nola
abizenetan iltzatua denak

han dagoena daki
nire haurtzaroak
urruneko albistegietan
norbait ezaguna ikustea
espero duenaren moduan

han dagoena dakit
ez naizenaren oroitzapena
dakidalako hemen

# PATIOKO EMAKUMEA

Emakumea oihuka hasi denean
arnasestuka eutsi diot burkoari,
altxatu naiz eta leihoa itxi dut
*aiei aiei* dioten doinu bako intziriak amatatzeko.

Patioa. Amildegia. Pertsona huts eskegiak blai.
Oihu egiten duen emakumea,
behinolako zentzuen oihartzunak itotzear gaua.
Urradura, ukondoen planeta honen joanean
ebakitako atzazalak, moztutako ileak,
memoriaren erresistentzia
lur azpian dagoenarentzat puska batez.

Iraganera narama gomutak,
ezer ez baitago urrunago:
ahoa josten badizute amona
nola jakingo dut norako zenituen orratzak,
zer edo nor zulatzen zenuen aho batez,
nola irakurriko dizut soakoa,
ezin bazaitut larru gorritan asmatu,
zer zenuen ments,

nolakoa zinen ernai,
ahoskatu ezinaren lurraldera trenez bidaian kasu
*Oier, cómo Oier, qué clase de nombre es ese,*
*por qué no te gusta dar besos,*
*yo sé que andas con esos radicales,*
*pero ven a visitarme,*
*te haré patatas, cientos de patatas,*
*miles de millones de patatas.*

Altxatu naiz berriz ohetik,
leihoa ireki dut parez pare
*aiei aiei*.

# BATUA

Oliba gizona. Hizkera garbia duen bestea.
Batua jaio den kanpotarra.
Fabriketan eraikitako etorkin ideologikoa.

Zer dio euskaldun berri zaharrak
arbasoen mendekua
gerturik daukagu odola
eta arro nago
jo-ta-ke guztiak
kantatzean?,
eta kontroletan mihiari eustean?

Bokalez mukurutu diren izenek
dioskute orainean badela mundu bat
Fernandez, Rodriguez, Hernandez, Bermudez,
eta bestek zedarritua dena.

Odolik gabeko berbak.
Odola isuri duten lerro arteak.
Oliba emea. Euskalkirik ez duen bestea. Batua.

Lerro hauetara jaio ninduten berbek
diote nola, naizena.

# FABRIKA ZAHAR BAT DA IRAGANA

Ez dago mundurik hemen.
Hegoa galdu duten torlojuak, zilindroak, hodiak,
herdoila besterik ez.
Jaberik gabeko izerdia.
Itogin itoak.

Non dago jendea?

Non daude hamaiketako irriak
grebarako deiak
goseak
aurpegiz beteriko izenak?

Ez dago mundurik hemen.

Iraganak aspaldi utzi zion ileak kentzeari,
belarrak jan ditu bazterrak.
Zokoetako aleen artetik edozein unetan
alu bat, zakil bat aterako dela dirudi.
Adokin zartatuen ertzetan.

Makina hautsien zokondoetan.
Genitalez beteriko
fabrika erraldoia da iragana.

Non dago jendea?

Denborak bere egin duen segundo bakoitzeko
hauts maluta bat.
Oihartzun lehorra.
Ahaztua izan ala museo bilakatu,
iraganak ez du beste paturik.

Baina non dago jendea?

Non daude atzo hil ala bizikoak ziren galderak?
Non pentsakor uzten zituzten galarrenak?

Adreilua. Eskailera. Horma.
Non dago jendea?

Ez dago mundurik hemen.
Asmatu egin beharko dut bat.

# GEZURRAK

Gaur goizean oroimena antolatzeko
premia sentitu dut lehenago inoiz ez bezala.
Egunkaria irakurtzen ari nintzela
noragabeko gomutan galdu naiz:
iritsiko da unea zeinean
momentu honetan bertan munduan
bizirik gauden guztiok hilik egongo garen,
pixkanaka, banaka, denok.
Neure buruari galdetu diot
zehatz-mehatz zein izango den segundoa zeinean
momentu honetan bertan arnasestuka
gaudenen arteko azkenak pausua luzatzeari utziko
dion.
Horregatik sortu zait poesia idazteko presa berriro,
egunkariek kontatuko ez dutena jasotzeko,
laztan baten neurria inori bidaltzeko.

Bizi gabe utzi ditugun munduak
salbatzeko modua izan liteke Teatroa;
historia ofizialik gabeko pertsonen memoria, Poema
bat;

oroitzapen klandestinoak trafikatzeko batzarra,
zigarro baten ertzeko solasaldia;
haurrei izenak jartzea,
liburuetan kabitzen ez dena idatzita uztea haizean.
Eta neure burua konbentzitzen saiatu naiz,
une honetan bertan bizirik gauden guztiak
hilik egongo garen garai horretan
bizirik egongo direnak engainatzeko modurik
behinena
gezurrak idaztea izan litekeela, sinets dezaten
gauzak beste modu batean egin litezkeela
Literatura izan dadin biharko historia.

# BENIDORM 2053

Neure burua berrogei urte barru:
sorbaldako ile zuriak eguzki haizetan
bisera jantzita
liburu lodi bat galtzarbean
lepotik zintzilik Kdick betaurrekoak
(modakoak eta garestiak ahal dela
gazteak izorratzearren).
Isilik eta beha
norantz ez dakit auskalo
(poemak idazten oraindik)
isilik atzerantz beha edo
gero eta laburragoa den etorrirantz.

Maiz esan ohi da denok dugula
behinola izandako haurra barruan
baina nik
neure baitatik beha
aiton erretiratu bat dut
betaurreko beltzekin eta beltzarana
sabelaren hanpatzeari ozta-ozta gain hartu diona
kalean ibiltzea gogoko duena

bilobak hazteko zain dagoena
(oroitzapen debekatuak nori aitortu edukitzearren)
ingurura temati begiratzen duena
azken bisai ezagunen bila
azken bero isuri ukabil lepo konpartituen bila.

Agure hori sumatzen dut atzamarka,
neure orainak jazartzen kezkati
*kalitatezko oroitzapenak*
*behar ditut kontatzeko* ohartaraziz
*aspertuko haiz bestela* mehatxatuz.

Berrogei urte barruko agureak
hankarte elurtuari so diost:
ez dago aitzakiarik
komunean eserita pixa egiteko
kultura descoolturizatzeko eta hala ere
kulturzaleak eta coolturistak berdin maitatzeko
super heroien trajeak lapurtzeko
super galtzaileen mitoak zapuzteko
unibertsoko zulo beltz guztiak azalera datozenean
plazera emateko
plazera sabaiak mututu gabe jasotzen ikasteko
korrontekeria politikoak kontrakoa dioenean ere

gauza ebidenteak modu ebidente batean esateko
maite duzunari kabroi jokatu duela aurpegiratzeko
zorion isekak ekarriko duen mendekuaren peskizan
bizkarreko ganibetadak isilik saihesteko
autoestimu liburuak konstituzio plaza erdian
erretzeko
*ni han izan nintzen* eta *hura egin nuen* esateko
*politikoki kiskaltzen ninduten berbak*
*astindu nituen oholtza hartan* aitortzeko
ezertarako ez agian
baina zeinen ongi eta eder.

Agure bat dut barruan kokoriko
orainari zor diodan etorkizunean
lasaigarri eta beleta.

# ETA GERO GEROKOAK

Zure bila nabil
akaba nazazun.
Topatzen zaitudanean
hori gertatuko baita
hamalau edo hemezortzi
edo hogeita lau urteren ostean.

Ezagutu egin nahi zaitut
pikutara bidal nazazun,
zure aurretik
joandako belaunaldiek
egin duten bezala
historiako hizkuntza guztietan.

Aurkitu egin nahi zaitut
liburuak oparitzeko urtero,
igandeak zure haserreekin betetzeko,
nekatzeko eta ufatzeko eta aspertzeko
maite nauzula ez diozun arratsetan.

Zutaz jakin nahi dut,
izango dituzun
kezkez eta zauriez
eta ahots aldaketez.

Usaindu egin nahi zaitut.
Garbitu egin nahi zaitut.
Nire ahurren hutsunean gorde nahi zaitut
zure beldurren habia izan dadin neure ahotsa
bakardadeak zu dioenean.

Zure bila nabil
gorrota nazazun,
munduan gehien maite diren
gauzak eta lurraldeak eta pertsonak
gorrotatzen diren moduan
edo gehiago.

# JENDEA IZAKI

# BESTEAK

gure antza dugu
baina ez gara
gu bezalakoak:

titular bateko protagonista izateari uko egin
bizirauteko aukerak zenbatu
artizarrari begira zigarro bat piztu
sudur handia eta ipurdi iletsua eta
titi txikiak eduki eta pozik egon

euria egiten duenero larrua jotzeko grina izan
gorantz doazen maldak beherantz korritu
norbait hizkuntza arrotzez mintzo denean gozatu
inori deus esan gabe atzerriak zenbatu

musika entzun eta abesten saiatu
inork «dakizkidake» esandakoan bizarra moztu
bilera batera joan eta ezer esan ez
bilera batera joan eta etengabe gaia aldatu

zakilari eragin eta eskuak usaindu
uzkia igurtziaz batera belarrira xuxurlatu
alua ferekatu eta atzamarrak milikatu
ezinezkoa denean ere heterogaya izan

famili bazkarian *euria itsaso hautsi bat da* esan
eta algaraka lehertu modu kezkagarrian
gazteagoei kontzertu hartakoak kontatu
eta onartu oraingo hauek direla garai onenak
azkazal hautsiekin zer egin erabaki behingoagatik

gure antza dugu
baina ez gara
gu bezalakoak:

sartu burua komun zuloan zer sentitzen den jakiteko
pixa egin ohearen alboan eta gero ahaztu
hordiak atrapatu antzerki oihal batean bildurik
hunkitu agureak kalean astiro paseatzen ikusteaz
eta pentsatu: agian putakume batzuk izan ziren
gaztetan

irrikatan egon lantokira joateko
ez lagundu zure premia duen lagunari

eta biharamunean bai baina berandu
ez esnatu garaiz ez jaiki ez jantzi

zirkuko akrobata batez maitemindu
zuretzat garrantzitsuenak diren gauzak
gorroto dituen harekin liluratuta geratu
eta erremediorik gabe zoriontsua izan

beltzez pintatu sukaldea
urteak bete eta urteak hustu
betiko ikusezina bihurtu
disolbatu bizitzan gatz edo azukre
eguneko aldartearen arabera

uholde arriskua dagoen egunetan
leiho guztiak zabaldu eta aldarri egin:
hilkorra naiz eta zer arraio
goxoa dago kafe ziztrin hau

gure antza dugu
baina ez gara
gu bezalakoak

# TEMPUS
## (Anakrusari zor)

Sekula ez nuen esperimentatu halako isiltasunik.
Lurrean bizilagunik egongo ez balitz bezala.
SAMUEL BECKETT

*Orbelak zirimolatan darabiltza haizeak.*
*baina abarrak ez dira hara eta hona okertzen.*
*Usoen marmarra bai. Usoen astrapala zoroa.*
*Haizeak eramandako hostoen bila usoak.*
*Haurrak jolasean. Haurrak harriak jaurtitzen.*
*Joan diren egunak iragartzen dituzten egunkari orriak.*
*Haizeak urrun daramatza udagoieneko orbelak.*

Zapatak erantzi eta belarretan utzi zituen.
Txikiak ziren bere oinak.
Nire eskuen tamainakoak.
Zapata hutsak belarretan.
Haizea sartzen zen zapatetan.
Haizeak udagoieneko azken hostoak eraman zituen,
zapata hutsak belar gainean haizea okatzen.

Bere oinei begira igaro zen udagoiena.
Bere oinei begira igaro zen negua.
Bere oinei begira igaro zen udalehena.
Amaitu egiten dira egun guztiak
baina orduko hura ez.

Nire oinei begiratu eta barre egin zuen.
Handiak ziren nire oinak.
Bere zapatak laztandu nituen astiro.
Bere zapaten leuntasuna,
larru hotza, biguntasuna.
Nire oinei begiratu eta barre egin zuen.
Bere zapaten barruan sartu nituen nire oinak
eta betirako isildu zen.

Amaitu egiten dira egun guztiak
baina orduko hura ez.
Eta nik amaiera bat nahi dut,
amaiera bat behar dut.

Zapata hutsak belar gainean haizea okatzen.
Kantu bat oinutsik.
*Lili bat hartu eta hostoz hosto erantzi*

*eta harek zu ere…* Harek zu ere zer?
*Lili bat hartu eta hostoz hosto erantzi…*
Nor zinen egun hartan? Jakin nahi al duzu?
Nik esango dizut: txikiak ziren zure oinak.

*Orbelak zirimolatan darabiltza haizeak.*
*baina abarrak ez dira hara eta hona okertzen.*

Zapatak erantzi eta belarretan utzi zenituen.
Txikiak ziren zure oinak.
Nire eskuen tamainakoak.
Zapata hutsak belarretan.
Haizea sartzen zen zure zapatetan.
Haizeak udagoieneko azken hostoak eraman zituen,
zapata hutsak belar gainean haizea okatzen.

Nire oin handiak sartu nituen
zure zapata txikietan
eta betirako isildu zinen.

Harrezkero isiltasuna baino ezin dut entzun,
eta nik amaiera bat nahi dut,
amaiera bat behar dut,
nahiz eta... nire oin handiekin

zure zapata txikiak apurtu.

*Lili bat hartu eta hostoz hosto erantzi*
*eta harek zu ere amets*
*eta harek zu ere erantzi*

Egun hartaz geratzen dena.
Ni, soilik ni.
Egun haren amaiera.
Ni, bakarrik ni.
Nahiz eta nire oin handiekin
zure zapata txikiak apurtu.

Haizea okatzen dut ito arte.
Haizea okatzen dut noizbait
oin txikiak dituen norbaitek
belarretan utzitako zapatek
okatzen duten haizea izan arte.

# GIZON BAT MIKROFONOAREKIN

Han egon. Zenbatu garondoak.
Ibili. Pauso motelegiak. Bagoaz.
Haurrak ere gurasoen eskutik.
Noiz ukituko dute elkar bikoteek
plazer hartu arte.
Noiz. Norbait begira dagoenean.
Esaldi zatiak. Leloen artean leloak.
Lurrera doazen listuak. Eguzkia.
Espaloietan haiek. Hemen ez.
Bagoaz. Iritsiko gara
mila pauso barru bada ere.
Pentsa nitzake gauza guztiak.
Galde nitzake orgasmo guztiak.
Negar egin titiburuan
kosk egiten didaten aldiro.
Hain da txikia denbora.
Hain da odola hain da lurrina.
Izerdia. Ahots korden hauspoa.
Aski dira hitz bat edo bi.
Zertarako gehiago. Dena dago hor.

Klin klin klin pianoa bailitz.
Etorri. Sartu barrura. Ibili.
Elkar ezagutu gabe. Elkar ukitu gabe.
Isuri. Ez galdetu izenik. Ez oztopatu inor.
Pentsatu hatz markak gauean.
Noren azalean. Sumendi oro.
Nor izan. Hemen. Ibili. Isuri.
Ez dakit zer gertatu den goizean.
Kontatuko dizut. Belarri bat dut ahoan.
Kontuz! Artaldeak! dio norbaitek.
Bat nator.

# BRUSELA
# EZ DA EXISTITZEN

## BIGARREN ESKUKOAK

Bigarren eskuko objektuak balira bezala
saltzen dituzte oroitzapenak
Waterloo kalean: iragan zatiak,
zeinei memoria ukatzen zaien
egunerokotasuna fikzioa denean.

Klandestinitatera derrigortu dut neure burua,
bake aroan ere adi egotearren.
Errealitatea fikziotik at asmatu,
oholtzatik eta orri zuritik harago
bizi den irudimena edo iraultza.
Zigarro bat erre terraza hotz batean
erretzailea izan gabe,
unearen mapak ezbaian jartzearren.

Bulkada eramangarri honek
manikien ezinegonari kantatuko lioke,

plastikozko zurruntasunetik askatzeko
urtaro berri bati: bosgarren urtaroari,
plastikozko loreen sasoiari.

## GHETTO

Txotxongiloen kanposantu bat behar du
hiriaren plano honek.
Europaren bihotza dioten lekuan
Matonge auzoa da taupada posible bakarra,
Afrikako zauria den kalea,
dantzarako prest dagoen asteguna.
Ileorde horiak harrotasunaren seinale,
*la vie est belle* oihukatzen duen emakumea
gerri mugimenduan izoztua.
Jela iluna da hemen, azalekoa,
arriskutsua bezain liraina.
Zuritasunak begiak itotzen ditu
arrazakeriaren kontrako larderia ahoskatuz
alkoholaren ertzetik,
ehun eta hogei kilo odol
listua kolonizatzeko prest.
Baztertuen leinukoa naiz gaur ere,

periferia samurren baitakoa,
ahozko literatura beltzaren ezpalekoa.
Etxean nago
une batez hemen.

## HETERRORISTA

Terrazaren aurretik pasatzean
ezpainetan pausatu du kea, niri so.
Geyper Man honen zurruntasunak ez du jakin
soka tenteen laguntzarik gabe zakiltzen.
Komun estuen free land bat
atxikirik darama ahoan, isilik,
heterorrista naizenetz zalantzan.
Ez dut aberria aipatu behar izan
ez diren lekuetakoa nagoela aitortzeko.

# HARRESI ETZANA

Ni naiz Berlin.
Ezagutu ez dudan hiriaren zama
zeharkatu gabeko historiaren aberria
binilozko ildoen zimurrak
eztia eta erleak.

Ni naiz Berlin.
Etzanda nagoen harrizko horman
adreiluzko belaunak
bihotz okupatua.

Sortu da eguna
arrotz zaizkidan kaleetan
bisaietan
esku hotzetan.

Ni naiz Berlin.
Mihien hezurdurak
liburu herrenen oroitzapenak.

Historia iragana da beti
baina ez telefono eskegia
fereka uzkurra.

Gezurraren luzerako lerrorik gabe
gordeko ditut eztanda konpartituak
kafe hutsean.
Norbera den oro dago munduaren bestaldean
gatoz haragiko ezpata
gatoz amildegi ziur
gatoz garaipen inperfektu
gatoz eta joan
bazoaz.

Une hau garaipen bat da
*Berlin!*
iraganak bata bestearen gainean
pilatzen dituen kanta
ohe baten pareko harresi etzana

Porrota diot eta gezurra da
manifestuak ekiditeko etena besterik ez
*esan nizun nik* taldearen kontzertua
bertan behera uzteko unea

*garaia duzu* denei erdeinua adierazteko
estrategia gupidagabea.

*Arkatza Zarata Galera Zirrimarra*

Egunsentiaren kalparrean
zabaldu zait inoren biluztasuna
atxiki dut keria bat hankarteaz
baina gaur ezustea naiz ezeren gainetik.

Etzanda egon eta horma esan.
*Berlin!*

Murrua izan eta espaloia
espaloia izan eta orri zuria
orri zuria izan eta etxe hutsa
etxe hutsa izan eta paretaren izerdia
paretaren izerdia izan eta mailuaren iltzea
mailuaren iltzea izan eta ahatearen aharrausia...
baina Berlin.

*Hodiak Kableak Hortzak Kea*

*Egun on Berlin, zer da hormarik gabe bizitzea?*

diost iratzargailuak eztulka.
*Eskua luzatu eta eskua izan* erantzun diot.

*Berlin!*
*Kondoi jendearen hiria!*
*Argi elektrikoa!*
*Maindire nahasia!*
*Eskua! Besoa! Galtzarbea!*

Lanera joateko prest
dutxatik irten zara.
Zu
hormaren bestaldean zauden
hori
zure biluztasuna
galera handi bat da
nire biografiarentzat.
Laztandu nahi zaitut baina bazoaz.
Arropa iseka larri baten moduan jantzi duzu.
*Eskua luzatu eta eskua izan.*
Agur. Gero arte.

*Umela Kandela Kristala Herdoila Kartoia Aulkia*

Behatz guztiak ditut oraindik.
Ni naiz Berlin
eta nire oinak ikus ditzaket goian.
Atzazal fin eta mozteko errazak
ugerraren arrastoak erpuruen ertzean.
Adinak zuria diost nonahi
baina nire urratsetan
ez da biloa korapilatzen.

*Flanela Itzala Egutegia Egurra*
Galtzerdien hautsa atzazal artean.
Aurpegi bakarra dut oin hauentzat.

Ni naiz Berlin!
Liburu erreak
ate eroriak
aingeru poetak
aforismo erbesteratuak.

Goizean Berlin diodan moduan
izango naiz Gaza arratsean.
Baina ezustea ezeren gainetik.

*Argi elektrikoa Maindire nahasia Eskua Besoa*
*Galtzarbea*

Berriro eranzteko plangintza sekretua.
Kontrakoa esango dizudan arren
ez dut etsiko:
ezagutu ez dudan hiriaren zama
zeharkatu ez dudan historiaren aberria
binilozko ildoen zimurrak
eztia eta erleak.

*Eskua luzatu eta eskua izan*.
Joanean zatoz. Eta nik une hau
garaipen bat dela erabaki dut:
etzanda nagoen harrizko horman
adreiluzko belaunak
bihotz okupatua.

# POZA

«Faltan botako zaitut» esan dio
ulertzen ez dudan hizkuntzan,
rakija basoa tragoz edatearekin batera.
Aulki gainera igo eta topa egin du soldadu ohiak:
«Une zailenetan alboan izan dugun jendearen
omenez!».
Edan egiten dute, erre egiten dute, negar egiten
dute.
Isilik dago orkestra zuzendaria izkina batean,
entzuten duen ahotsen doinua ulertu nahian.
«Aurpegi batzuek metrailak zartatutako etxeak
dirudite»
pentsatu du alabak bere amari begira.
Mahai gainera igo da irribarre gozoko neska:
«Topa egin dezagun joan direnen alde!,
hondakinetatik berreskuratutako oroitzapenen
alde!».
Edan egiten dute, erre egiten dute, negar egiten
dute.
Oroitzapenak zerrendatu ditu gizon heldu batek,
egunkariek kontatu gabeko kontu asko dagoela otu

zaio,
Drina ibaiaren izena duen zigarroa eskuan duela.
Ile zuridun emakume gazteak barre egin du, ozen,
ulertzen dudan hizkuntza batean,
hitza hartu du gainerakoak maitasunez mutu
direnean:
«Nahiago nukeen gerra ezagutu ez izana, baina
orduan ez ginateke gaur hemen elkarrekin egongo.
Gerraoste honek ez du adiskidetasun osterik
izango!».
Topa egin dute, edan egin dute,
erre egin dute, negar egin dute, kantatu egin dute
ulertzen ez dudan hizkuntza batean.
Moramo i?i! Moramo i?i!
«Itzul zaitez» esan dio soldadu ohiak
ile zuridun emakumeari. Rakija edan dute
kolpe batez bihotzeraino jaurti nahi balute bezala.
«Dvolim te puno!» egin dute oihu musikariek,
ulertzen ez dudan hizkuntza eder batean.
«Osasuna!» deiadar egin dut nik
haiek konprenitzen ez duten mintzairan
eta ulertu egin dute. Topa egin dute nirekin,
edan egin dute, negar egin dute, barre egin dute,
kantatu egin dute. Eta dantzan aritu naiz haiekin.

Musikariek eztarria marrantatu eta rakijaz bete dute
a capella edo akordeoiaz edo gitarraz edo
biolinaren notak dituen botila hutsaz.
Haur batek ez du ezertxo ere ulertzen
eta loak hartu du aulki baten gainean.
Hóceš li sa nama?
Kapitaina izandako emakume soldaduak
dantza egin du eta argazkia atera du,
abestu egin du eta argazkia atera du,
ez daudenentzat argazki album bat osatzearren.

# MANIKIEN ODOLA

# ZU ETA NI BEZALAKOAK

Zer jaten dute manikiek.
Lorik egiten ote dute.
Nork ipintzen die izena.
Mintzatzen al dira norbaitekin.
Zergatik ez dago
maniki lodirik eta iletsurik.

Erakusleihoak eta hondartzak
manikiez mukuru,
aldaka zabal eta
titi txikiko zerak,
zu eta ni bezalakoak.

Armada bat osa liteke
panpina guztiak elkartuta,
herrialdea alfabetatzeko edo
boteretsuei eta agintariei
aurre egiteko atsedenik gabe

Haragizko zer bat
uste baino bigunagoa, zimurragoa,
zalantzaren bisaia duen
beste ni bat.

Agerian paratu naiz,
eguzkipean:
manikien antza dut,
baina batez ere
haien asmoen antza.

# OIN TXIKIAK

Ez dituzu jasaten oin txikiak dituzten pertsonak.
Hauskorregiak iruditzen zaizkizu.
Nola ibil liteke inor munduan horrelako zolekin.
Batez ere enbor sorbalda hezur zabalak edukita:
zapata ñimiñoak janzten dituzten gizon handiak,
haurren sandalietan kabitzen diren emakumeak,
edozein unetan lurrera eroriko direla dirudi.
Ai.
Belaunetatik heldu eta babestu egin nahi zenituzke.
*Ez zaitezte etxetik irten*, esango zenieke,
*hau ez da oin txikiekin ibiltzeko mundu bat,*
*ondo pausatu behar da hankazpia,*
*zutik erortzeko gai izan.*
Beste kontu bat da ordea
oin txikiak eta gorputz txikia izatea,
horrek ez zaitu kezkatzen.
Funtsean, desoreka da arazoa.
Ezin duzu ekidin oin txikiak dituen jendeari beha
egotea,
hitz egiten duten bitartean hankapaloak zelatatzea,
eroriko diren beldur. *Ez zaitezte mugitu, arren!*

Ezeroso sentitzen zara, ezingo zenuke lasai miazkatu
oin txikiek sostengatutako sorbalda zabalik.
Haiei so ibiltzen zara nolanahi ere,
loa trabatzen dizute, oin handiak dituztenek ez bezala.

# GERTURATU ZAITEZ

Gerturatu zaitez apurka.
Behingoagatik ez naiz mugituko.
Ez diet zure mamiei neureekin erantzungo,
geldirik lagako ditut goseak
proba egitearren:
zer sentitzen den hartzaile izaki,
objektu bilakaturik, besteren atal.
Kosta egiten zait onartzea xede nauzunik,
horregatik erantzun ohi diot zure erasoari
temati edo esker oneko,
hortzak su motelean igurtziz,
lixa zurrunduz bigun eta egur,
orroak apurtu ostean.
Gaur isilik egongo naiz.
Ez naiz saiatuko hutsuneak airez betetzen,
hura bultzatuz ez bada.
Uko egingo diot xuxurla tranpatiari,
orri zuritu nazazun
hats likits, edabe edo idazki.
Ez dut iluntasuna zure albotik ezabatuko,
argia pizten utziko dizut osorik beha nazazun,

aurrera egiteko hautua erakuts diezadazun.
Ondo dago begietara so egitea,
baina lazgarriagoa da izendatu gabeko
ezein lautada txatal arretaz haztatu
eta abian jartzen ikustea.
Hain da mingarria egiten uztea,
hain ulertezin hauskor eta umela.
Gerturatu zaitez.
Ez dut zalantza ukatuko.
Ez dut beruna mentaz tindatuko.
Zatoz, zurekin joan nadin.

# ZORION INPERFEKTU HAU

Gaur ez da hondartza eguna guretzat.
Pantailaren aurrean eseri eta
zauriok lerrokatu ditut,
aldameneko gelan
akiturik etzanda zauden bitartean.
Horrelako egunetan beldur naiz
ez ote naizen ni ere
zure gorputzak bizi duen zamaren orube.
Zein neurritan izango zinen beste bat
(ezberdinagoa, zoriontsuagoa)
elkarrekin bizi ez bagina?
Zein neurritan izango nintzen beste bat
(lasaiagoa, egonkorragoa)
elkarri lotu ez bagintzaizkio?
Ez gara inork idatzitako
biografia baten jabe,
baizik eta abailen egarri diren
hankarte guztien adin berekoak,
inork gutxik ulertuko dituen lanak egiteko
lanak hartzen ditugunean

militantziaren zirku gorabeheratsu honetan.
Gaur ez da hondartza eguna guretzat
eta izan zitekeen,
egutegira kateatzeak ematen duen
lasaitasunean harpide izan bagina gu ere
eta ez fereken gose izatetik
ferekak ments izatera
beti azkarregi pasatu diren
gorputz zigortuak.
Bizi dugun munduaren parte gara
hala ez denean ere.
Gaur hondartza eguna izan zitekeen
zu aldameneko gelan akiturik eta
ni zauri ezdeus hauek lerrokatzen
egongo ez bagina, hemendik gutxira
inora ez doan bidaia hasi aurretik.
Zorion arraro eta inperfektu hau
topatu ez bagenu
bizi gabe utzitakoen karelean.

# ZIRKU INTIMOA

Izan dadila sendatuko zaituen izurritea,
etsiturik zaudenean kutsatuko zaizun sukarra,
gorputz ebakia osatuko dizun gezur benetakoa.

Biriketan aireak greba oihukatzen duen egunetan,
izan dadila ahotsaren hauspoa
mingainetik mingainera
zabalduko dugun hatsaren lorea.

Izan dadila esku bat zauriz beterik
danborra nekearen azken taupadekin eusteagatik,
plazatik plazara darabilgun makilan
utzitako arrasto odoltsuekin,
mezuak fardel edo zama.

Izan dadila posible zaigun galera,
errealitate tematiei aurre egiten dien egunen
laburra,
une batera eramanda bizitza oso baten beharra.

Izan dadila batzen gaituen errituala,
iraganari lotutako dantza hautsia,
oinarrizko senari estekatutako manifestu itoa.

Izan dadila igande goizetako eztula,
garestia bizitzaren jakitun delako,
garestia saminaren lepotik dihardugulako,
garestia biharko negarraren aitzindari delako,
baina gurea
katerik gabe preso denaren eldarnioa.

Izan dadila gaixoaldia bilatzen duguna
eta ez bake aroa,
bizi gaitezen sukar arotik sukar arorako
osasun zurbiletan.

Izan dadila sendatuko zaituen izurritea,
egia bezain triste altxatzen zarenean,
oinak astun,
begiak indarge,
ahotsa erro.

Izan dadila
egia bilaka ditzakegun

gezur guztien laburpena,
egunen zama arinduko duen orea:
sugar hau,
lelo hau,
tristezia aldarri absurduekin alaitzeko dugun
gaitasun hau.

Izan dadila sendatuko gaituen izurritea,
izan zaitezen zu, berriro, nire sukarra.

# MINA

Mina pertsona bat izango balitz
(esan dezagun Ulrich Müheren belaunak eta
Nastassja Kinskiren belarriak dauzkala),
minak aurpegia edukiko balu
isilune adar listu gurpil baten ostean
errua nori egotzi jakingo nuke:

ez dakit zer egin txikitan galdu zenituen hortzekin,
dagoeneko estu dituzun zapatekin,
urtez urte gordetako barne isuriekin,
hortzen arteko arrasto beilegiekin,
nahi gabe irentsitako arrain hezurrekin,
etxeko hoditerian ilez ile osatu duzun pelukarekin,
hogeita hamar urtez moztu dituzun atzazal zatiekin.

Mina pertsona bat izango balitz
belaunburuak ukituko nizkioke,
planeta bikien forma bildu ahurrean,
ezpainen zama gerturatu haietara,
itsumustuan sumatu ildo bakanak
eta mugimendu bakoitzeko hezur-ikara.

Belarriak mamiekin irudikatuko nizkioke,
edertasunaren kanonetatik ihes egiten duten
atal elkarrengandik urrunduak,
zeinetan erna daitezkeen listuaren astindu soil batez
atsekabearen hego zauriak.

Mina pertsona bat izango balitz
sorbaldetatik oratu eta astindu egingo nuke,
bokal bakarraren errepika luzatuz.
Begien barrutik heldu eta
haren aurrean eseriko nintzateke,
elurra ile zurien barrura sartuz
eztia erlearen ziztadara nola.

# SAMURTASUN POLITIKO BAT

Elkartasun basati bat sumatzen ahal da
behinola taberna-zulo berak
konpartitu zituztenen artean.
Konplizitate isil bat elkarri begiratzean,
iluntasuna laztanekin igurzten zituzten haiek ikusita
egunen zama bidegorrian izerditzen duten hauen
lekuan.
Geografia estu bat bestearen ileorde zurian,
aukeren mundua ahoskatzen zuen hura
uzkurturik sentitzean.
Gogoaren antzaldatze bat,
poema kaskarrenak posible egin zituzten
azal tenteen soinu banda aditzean.
Jakinduria mutu bat,
oraindik sentitzeko gai diren
gorputzen janzkeran,
erretirotik urrun diren isurien egarrietan.
Samurtasun politiko bat,
galdera lizun batek urruntzen duen
iragan komunaren bidean.

Konspirazio poetiko bat,
behinola aukera zena
egun fikzioa dela jakinik,
norberaren gezurrak sinesteko prest daudenak
eroak baizik ez direla aitorturik,
osasun txepel hau gehiegi maite dugun honetan.
Herrentasun eder bat,
balizkoen agenda murriztuari erreparatzean.
Porrot sentsazio gozo bat,
eskutik
helduta
ahur.

# ABSENTZIA

Keinu bakar batean bizi den hilotza.
Ilusio zendua.
Ez dago lekurik metaforarentzat.
Objektu probokatzailea da manikia,
ironikoa, gizakiari egindako iseka larria.
Arimaren absentziari esker
heriotzaren parekoa.
Amaieraren osteko minutuetan
haren antza du gizakiak.
Horregatik dira gupidagabeak,
akaberaren imitazio errealistak.
Gure heriotza propioari so gabiltza haietan:
izaki hutsak, behinolako desio momifikatuak,
erakarpena eta bazterketa sortzen digutenak.

Izakiaren antza txertaturik darama manikiak
ala pertsonak gara haien keinuen zama
daukagunak?

Badira manikiak diren pertsonak eta estatuak,
besteen begiradei erantzuteko ezgai,

bizi osorako aurpegieran gatibu, zurbil eta zuhur.
Ezinaren hizkuntza izan nahi luke mututasunak,
auzoa irentsi berriz munduak
elkartasuna okatzearren,
berdintasuna inposatzearren.

Norberaren antza txertaturik darama manikiak
ala gu gara haien keinuen zama daukagunak?

# OINAK HOTZ DITUT BAINA EZ NAGO HILIK

# BUFOIAK DIO

ez ezazu poesia idatzi
ez badakizu justizia
beste hitz batzuekin esaten

# ERRAZKERIAK

barre egin inork espero ez duenean,
oztopatu inurri ilara baten ibilbidea,
ezabatu telefono bat komuneko atetik,
aipatu Che Guevara XXI. mendeko
intelektual ezkertiarren solasaldi crianza batean,

hemen izango bazina bezala
abestu amodiozko kanta hura
inguruko inork entzun ez arren,
izan erbeste mota guztien periferiakoa,
gutxiengoak boterea erdiesten duenean
beste gutxiengo bat bilatu,

ergela izan inteligenteen artean,
mespretxatu burkide elitistak,
berba errazak korapilatzen direnean
defendatu -keria ederrenak,
isildu taberna baten erdian,
beti ezberdinak izan nahi dutenen artean
arrunta izan, izan betikoa,

egin zeure buruak espero ez duen zerbait,
erabaki zer egin airearekin

# KONKORRA

*Artea beti da politikoa*
*baita politikoa ez denean ere.*

Itsusia den orok ideia propioak ditu
bizitzari buruz, gizarteari buruz,
norbere buruari buruz
eta batez ere besteei buruz.

*Asperdura beti da politikoa*
*baita politikoa ez denean ere.*

Itsusiaren definizioan datza norberaren itzala:
konkorra, herrena, musumotza.
Luza liteke zerrenda, ezerosoa dena ere itsusi:
lodia, argala, iletsua, burusoila.
Aise zabaltzen da deformitateen xenda:
homosexualitate jakin batzuk,
heterosexualitate bigunak,
hipotekara eramaten ez duten bideak,
esplotazioa, langabezia.

*Lana beti da politikoa*
*baita politikoa ez denean ere.*

Itsusiaren definizioan datza taldearen itzala:
horregatik eroetxeak, presondegiak,
kultur kritikari politikoak,
subentzio bigunak, tertulia ustelak.
Edertasunaren zentzu bat gal ez dadin,
oreka estetikoa eta ideologikoa
desorekatzen duenari zor zaiolako
laguntza edo erasoa.

*Aisialdia beti da politikoa*
*baita politikoa ez denean ere.*

Ideia propio oro
izan daitekeelako
konkor bat
jendartearen itzalean.

*Edertasuna beti da politikoa*
*baita politikoa ez denean ere.*

# BESTE BELARRIA

Heiner Müller,
zatoz nirekin hondartzara;
hemen topatuko duzu populua
une batez hilik
Berlinen bezala
titiz gora.
So egiozu langileriari
eguzkipean berdindurik,
ahotsaren ertzak arrotz bildurik,
lumaroa estekatuz,
Van Goghen belarria odoletan jaten
Arestiren mingainaren truke.

Poesia hilik baldin badago
teatroak berpiztu du oinazetan.

*Artaud da kasu erabakigarria.*
*Poliziari ebatsi zion literatura,*
*medikuntzari teatroa.*

*Planeta honetako kontinente guztiak*
*argitzen dituen torturaren eguzkipean*
*bere testuak loratzen dira.*

Heiner Müller,
zatoz nirekin hondartzara;
belarri motzen buru desitxuratuarekin batera
piztuko zaizu haragi errearen lorategia,
bularreko ileak goratuz
astinduko dituzu adjektiboak:
ederrak garelako gara ederrak
eta ez dugu beste akuilurik behar,
anormaltasunean datza
ahotsaren ertzeko arrazoia.

Heiner Müller,
hauxe duzu hitz gordeen azken mirakulua:
lur honetan etzan gara putak, blogariak,
bakezaleak, hirigintza zinegotziak,
pailazoak, arrain saltzaileak, besamotzak,
idazle handinahiak, ekintzaileak,
mozkorrak, hiltzaile ofizialak,
itzalak ito nahian denak.

Heiner Müller,
zatoz nirekin hondartzara;
badoaz hemendik lehen etorritakoak,
harrizko harean datza
zazpiehungarren titularra,
inperioa ostikoka eraikitzen den honetan
karratua da nire baloia.

«Crema de zanahoria, protección alta,
Mikel, etorri hona!,
a dónde te crees que vas?».

*Pertsona baten bizitza ez da*
*historia ulertzeko aski.*

«Cuarenta grados, se esperan
tormentas al final de la tarde,
alerta naranja», bandera gorria.

*Munduaren parasitoak gara,*
*artea aldiz gaixotasuna,*
*normaltasunak itoko du poesia.*

«Mejor nos ponemos detrás,
que estoy sin depilar».

Heiner Müller,
zatoz nirekin hondartzara;
gaixotu gaitezen,
moztu dezagun
Van Goghen beste belarria.

# IDEAL ERREALISTA

Uda joan da bere azal erreekin,
sorbalda biluziekin,
eltxoekin eta gau telegrafikoekin.
Badator udazkena paper zurira,
geldotasunaren baitara itzultzen den
mugarri mugikorrera,
antzoki mortuetan berpiztu nahi diren
oroitzapenetara.

Oinak hotz ditut baina ez nago hilik.

Udazkeneko lehen eurietatik ihesi
hartuko ditut terrazak,
tabakoa, garagardoa eta galderak
konpartitzeko xedez.
*Zein litzateke zure bizitza ideala?*
*Eta ideal errealista?*
eztabaida oparituko diogu elkarri
epe laburrerako proiektuak trukatu aurretik.
*Hogeita hamar urteak dira adin perfektua,*

esan dit aktore beterano batek
*heldutasuna duzu eta oraindik indarra.*

Oinak hotz ditut baina ez nago hilik.

Hondartzan ainguratutako baleei
ura botatzeari utzi diogu,
ohola bota ondoren uretara:
norabidea aukeratu duten naufragoak gara.

# HERDOILAREN MARTXA

Munduaren argitzala
poesiaren gainbehera
iraultza intimoa

zirku hila

aurpegi zurbilak
begi ozenak
ezpain beltzak

zirku hila

hautsaren doinua
ur hotzaren epela
gauaren azala

zirku hila

ezten betea
ziztada hautsia
zirkulu irekia

zirku hila

*(la prochaine fois*
*je choisirais la carte*
*pas le trésor*
dio marinelak)

mundua arrotza da
arraroa bidea
ez bada bizi

ZIRKU HILA!

# BUFOIEN TROPELA

Bihotzaren ideologia razional bat
publikatuko dut airean.
Maskara jantziko dut biluzteko.
Garenaren eztandarekin zatituko dut ahotsa.

*Gu. Garailerik eta garaiturik gabeko garaietan.*
*Gu. Etekinaren bezperako gauetan.*

Ahora eramanez orainak,
ahora ekarriz ordainak,
atzizkietan harrapatuz aditzen kaiolak.

*Gu. Uneen memoria soldataren erbestean.*
*Gu. Mirari erratuak.*
*Gu. Zaramaren oroitzapenak.*

Zabuka ederresten isiltasuna,
bandera mutuak erdituz haizearen kalparrean,
mugimendua adierazten duten berbak lehenetsiz

poesiarik ez duten poemen errailetan.

*Gu. Igandeei kenduz eman.*
*Gu. Oporrak luzatuz goizetan.*
*Gu. Bagarena bilatuz besteetan.*

Bihotzaren politika herrena,
oraina mintzo duen lehengoaia,
zilegitasunaren aldarri itoa,
besarkada baten eldarnioa.

*Gu. Izan zirelako gara.*
*Gu. Ez garelako zatika dira.*
*Gu. Uneak askatuz lurraldeak bailiran.*

Laino arteko mugimendua
esku baten dardarara ekarria,
algara hautsi baten pausalekura,
ibilera baten zurrumurru basatira.

*Gu. Koroaren ahots ebakia.*
*Gu. Bazkal osteko kantuen zirrara.*
*Gu. Zauri bakoitzaren kemena.*

# HIRI BATEN TAMAINA DUEN MAGALA

*Mesedez, orraztuko zenizkidake*
*belarriak? —Vladimir Maiakovski.*
Ezer ez da ezer ez bada
mendekuaren defizit arraro bat,
zeinean amorrua den
maitasunaren modu gorena.
*Urrunago iristen da*
*nora doan ez dakiena —Eusebio Calonge.*
Justiziaren, memoriaren eta elkartasunaren
definizio berri bat ments,
eskelen herrentasun historikoari
muzin egiten ez diona,
bizitzaren tristezia arintzeko moduko
elbarritasun mendre bat.
*Ze lubakik babestuko nau*
*nire gaztetasunetik —Heiner Müller.*
Denborak bukatutako izenak,
deklaratu gabeko gerra ororen biktimak,
denbora faltak eraildako munduak.
*Eta bitartean, han kanpoan, nigandik at,*

*gauza mordoa gertatzen da —Rodrigo Garcia.*
Samurtasunaren mapa edo muga,
nornahik defendatzen duen
tristeziaren mugarrien kontrola.
*Munduak entretenitu dezaten nahi du*
*baina aztoratu beharra dago*
*aztoratu aztoratu —Thomas Bernhard*
aztoratu samina izan dadin
hil-urren den amona bati eskua hartzeko bulkada,
edonoren oroitzapen xumeenak ekarriz
behin eta berriz gogora:
zuhaitz hura, begirada hura,
sekula zeharkatu gabeko xenda hura.
*Harritu egin zen bera ikusteko eta*
*egunero ordu berean munduan zegoela jakiteko*
*premiaz jabetu zenean —Sam Shepard.*
Ez dago justiziarik akabatu denarentzat,
ez dago justizia definitzeko modurik
bukaera horren lekuko direnentzat.
*Poesia guztia*
*ezezagunari buruzko*
*bidaia da —Vladimir Maiakovski.*
Besarkada bakoitzean hasi eta amaitzen den
zoriona,

oroitzapen bat konpartitzean
hasi eta amaitzen den mendekua.
*Badakizu jendea negarrez entzuten dudala*
*beti nire inguruan?,*
*beti dago norbait negarrez,*
*baina jendearen aurpegiak begiratu eta*
*ez du inork negarrik egiten, inork ez,*
*inork ez dirudi negarrez, eta hala ere*
*nik negarrez entzuten dut jendea, ez duzu zuk*
*jendea negarrez entzuten? —Angelica Liddell.*
Saminaren izenordea,
zorionaren historia,
ahozko biografia.
*Behin betiko bukatu behar da teatroan*
*jokaera funtsean estetikoekin. Teatroa da*
*artearen legeek bizitzaren ausazkotasunarekin*
*talka egiten duten lekua, eta talka horietatik*
*sortzen dira gatazka bortitzenak —Tadeusz Kantor.*
Bukatutako pertsona ororen oroitzapen txiki oro
artxibatzen duenarena da
jainko demokratiko baten irudi posible bakarra.
*Utikan errepresentazio ikuskizuna,*
*obra bat gauero aldatu behar da,*
*funtsezkoa da obra aldatzea —Antonin Artaud.*

Bizitza oholtzarik zailena,
familia publikorik zorrotzena:
testua buruz ikasi,
dioena ahazteraino amen.
*Mesedez, orraztuko zenizkidake*
*belarriak? —Vladimir Maiakovski.*
Hiri baten tamaina duen magala,
amona bat edozein amona,
ahotsik gabe urrundutako izenak ospatzeko
mututasuna edo itsasoa.
*Ez ezazu begiratu.*
*Mundua lehertzeko zorian da —Harold Pinter.*
Ezin da mundua ulertu
amona baten edozein amonaren
eskuak ukitu gabe.
*Nire emazteak idatzitako lehen gutunak*
*bere begiradak izan ziren —Joan Brossa.*
Jaso ditudan maitasun istorio
guztien isiltasunarekin mintzo zait
oroitzapen bat irauten duen denbora.
*Zoroa! Pailazoa! —Vladimir Maiakovski.*
Bai, diot nik.

# SUDURRIK GABEKO PAILAZOA

Brusela,
Madame Catastropheren etxea,
abuztua

Ezkerreko zutabeko testuak:
SUDURRIK GABEKO PAILAZOA.
Eskuineko zutabeko letra etzanak: KOROA.

## —1—

Elurra ari du pailazoen eta bufoien gainean.
Elurra ari du artearen bulegoetan.
Elurra ari du nire hankartean.
Elurra ari du.

*ELURRA naiz eta ELUR nago.*
*Beharrezkoa den ezer ez da beharrezkoa.*
*Beharrezkoa den ezer*
*ez da beharrezkoa den ezer bezain*
*beharrezkoa.*

Maitatuak izatea merezi duten gauza guztiak
maitatu nituen nik.
Desagertu egin naiz haietan.
Elurra naiz orain
baina oraindik gorria da nire sudurra,
ez dago sudur hau ustelduko duen hilobirik.
Baina non dago nire sudurra?

*Sudurra SUDURRA suDURRA!*

Maita zitezkeen gauza guztiak
maitatu nituen nik,
maitasuna gorrotatzen hasi nintzen arte.

*Maita dezake grabatutako ahots batek*
*maita dezake karneteko argazki batek*
*maita dezake sudurrik ez duen pailazo*
*batek?*

Maita zitekeen guztia maitatu nuen!
haurren algarak, helduen deiadarrak,
ameslarien gainbehera ere maitatu nuen
erbeste kulturala edo Europa helburu zutenean.

*Joan hintzen, sekula ez bueltatzeko.*
*Europaroparopa*
*E-U-ROPA*
*opa Europa*
*ergelen arropa Europa*
*lorerik ez nizuke opa.*

Merezi nuen.
Sariak eman zizkidaten.
Nire izena jarri jaio orduko hil zen haur bati.
Existitzen ez diren lekuetan egon naiz.
Han ez da inor bizi.

*Europa!*

Existitzen diren lekuetan bilatu dut
existitzen ez den okada.

*Eusropa!*

Existitzen diren lekuetan
ez baita existitzen teatroa,
ez bainaiz existitzen ni.

*Eroen arropa Europa!*

New aberri land bat bozkatu nuen,
bertako postalak estaliko zuelakoan.

*Eusropa!*

Hizkuntza baztertu nuen
ahots baten truke.

*Europa!*

Maita zitekeen jendea topatu dut han,
maitatu ditut mutu.

*Mutu da damutu*
*abstentzioarekin ez hintzen estutu*

Existitzen ez diren lekuak eraiki ditut
existitzen diren lekuen bihotzean.

*Ergelen arropa Eusropa!*

Europa nuen xede eta ez naiz puta bat
utopiatzat jo duten lanbidea izanagatik:
teatroa.
Europa nuen xede eta banaiz puta bat,
besteren izenean utopia lanbide bilakatu izanagatik:
horregatik diot naizela Eusropa.

*Non dago euspopa. Eusrocka. Euskoka.*

Elurra ari du pailazoen eta bufoien gainean.
Elurra ari du artearen bulegoetan.
Elurra ari du nire hankartean.
Elurra ari du.
Baina non dago nire sudurra?

*Sudurra SUDURRA suDURRA!*

Zer dator engaiamenduaren ostean?
Zer geratu zaio nire belaunaldiari?
Zer izurrite klase kutsa liteke
osasun demokratikoaz lepo garen honetan?

*Hartu artea Artaud!*

Nork suizidatu zuen Van Gogh?
Nork suizidatu zuen Woolf?
Nork suizidatu zuen Pizarnik?
Nork suizidatu zuen Maiakovski?
Nork suizidatu ninduen ni
autoa errepidean lehertu zenean?

*Nork?*
*Gukhaiekneuk*
*eta hik Nork?*
*Gukhaiekneuk*
*eta hik Nork?*

Nork suizidatu zuen berdea?
Nork suizidatu zuen itsasoa?

Nork suizidatu zuen ilusioa?
Nik.

*Nork?*
*Gukhaiekneuk*
*eta hik Nork?*
*Gukhaiekneuk*
*eta hik Nork?*

Nork suizidatu zituen urre publikoak?
Nork suizidatu ninduen ni.
Nork suizidatu zuen langileria?
Nork suizidatu ninduen ni.
Nork suizidatu zituen kultur espresioak?
Nork suizidatu ninduen ni.

*Isildu.*
*Ez haiz sekula izan*
*erdigune,*
*nondik mintzo haiz,*
*noren diruarekin erosi dituk*
*aldarriak idazteko arkatzak.*
*Isildu hadi.*
*Hoa.*

Nora?
Nor naiz inon ez nagoenean?
Non nago inor ez naizenean?
Eta neu baldin banaiz
gauzak aldatu nahi dituen bakarra?
Utikan ilusioa.
Betor oholtza gaineko errealitatea.

*Hain da mingarria*
*ahaztura ezta?*
*Hain da mingarria*
*inork ez oroitzea ezta?*
*Hain da mingarria*
*biografiarik eza ezta?*
*Hain da mingarria*
*bat gehiago izatea.*

Ez.
Bat egin nahian
bakarrik geratu nintzen,
behinola babesa eman zidan
artalde beltzik gabe.
Teatroa egin nuen jendez beteriko

basamortuaren erdian.
Krask boom arrggg
marmolezkoak dira
enetzako lore bakanak.

*(Txalo ironikoak).*

**—3—**

Bakardadea aukeratu nuen
ala bakardadeak aukeratu ninduen ni?
Etxea erbesteratu nuen
aski zelakoan nire urratsen soinua.
Aniztasuna goretsi nuen

*goretsi?*

unibertsaltasuna hobetsi

*hobetsi?*

bertakoa mundu ez zelakoan.

*Mundu mindua haiz.*

Bakardadeak aukeratu ninduen ni.
Orain zera diot:
heriotza da bakardade posible bakarra,
bestelako isolamenduak kondena hutsa dira beti.

*Nork suizidatu zuen elkartasuna nork?*
*Nork suizidatu zituen itzulerako bidaiak*
*nork?*
*Hik. Nork. Hik.*
*Hik. Nork. Hik.*

Kha!
Publikoa behar du bakardadeak ere, Kha!:
familia, lagunak, lankideak, auzoa.

*Publikoa behar du bakardadeak.*

Bestela, nork esango du «berezia zen»?
Kha!

*Egidazu kar. Egidazu kha. Egidazu ba.*

Kha!

*Bakardadea ez da publikoa,*
*pribatua baizik, intimoa.*
*Hoa.*

Nora?
Dagoeneko ez naiz nire urratsen jabe.

*Baina haren doinuarena bai.*
*Doinuen dolua.*
*Zakilen ulua.*

Ezbakardadetik ezbakardadera doan
bakartasuna da hau:
bakana, errepikaezina den
zauri bat bezalakoa.
Kha! Kha!

*Mutu da damutu.*

Jendez inguraturik nago,
baina bakardadea beti da mutua.

*Heldu haiz.*
*Ase haiz.*
*Ito haiz.*

Heriotza da bakardade posible bakarra.
Publikoa maitatuko dut
berak ez badaki ere.

*Heldu haiz.*
*Ase haiz.*
*Ito haiz.*
*Galdu haiz.*

Nire gorputzera datozen begiekin maitatuko dut
publikoa,
bakarkeriara datozen ezten guztiekin desiratuko dut
berak ez badaki ere.

*Maitatuko dituk*
*haren beldurrak*
*ikurrak*
*makurrak*
*gailurrak*
*elurrak*

*Berak nor haizen*
*ez badaki ere*

## —4—

Urrunera joan nintzen
gertu egotearren.

*Urrun...*

Urrun dagoena beti dago han
gertu badago ere.

*Urrun...*

Gezurra naiz
mutu mintzo naizenean ere.

*Urrun!*

Urrun dagoen guztia
gertu dago hemen.

*Urrun!*

Basamortua beti da ezberdina,
itsasoa bezala.
Oasirik ez dago oasietan.
Oasiak ez baitaki oasia badenik ere.

*Ur. Urrun.*

Naizen lekuan nago.

*Urrun!*

Nagoen lekukoa naiz.

*Urrun.*
*Ur. Urrun.*
*Urrun.*
*Ur. Urrun.*
*Urrun.*

Ez dakit nor naizen
edonon nagoenean.

*Heldu haiz.*
*Ase haiz.*
*Ito haiz.*
*Mintzo haiz.*
*Mutu.*

**—5—**

Bizi ote naiz inoren gogoan?
Inoren oroimeneko segundo bakarrean?

Sudur gorria nintzen
konkorra
jabeak ahaztu duen objektua
manikia
objektuak ahaztu duen jabea
gauza
maitasunak eraildako poema.

*soberan eta plist*
*jira ta jira plof*
*libililibili pu*
*ja*

Egon behar nuen lekuetan egon nintzen
behar ez zen garaietan.
Arrakasta erdiesteko moduko uneak bizi izan nituen
okerreko lekuetan.
Sorkuntzaren alde eman nuen bizitza
pentsamendu bakarraren minbizi.

*ja.*

Baina ez zuen inork ikusi,
ez zen inor enteratu,
eta enteratu bazen ere ez zuen axola.

*Aiene ta plist*
*rasta rasta pu*
*libililibili plof*
*jira ta jira jo*
*ja*

Nire arrastoak bilatu ditut
besteen oroitzapenetan:
elurretan utzitako oinatzak, ene uneak.

*ja*

Elurra egiten duen aldiro agertzen naiz
berriz ere zurikeriaren memorian.

*Iaia plist plof*
*rasta rasta ja*
*libililibili tras*
*jira ta jira pu*
*jo*

Emanalditik emanaldira bizi izan ditut
izan nintekeenaren lorratzak.
Bizitza ospatzeko nahia zabaldu dut
jendarte bakoitzaren gogo-bazterretan.

*Gogo!*

Zer gelditu da izan nintzen hartatik?

*Gogo!*

Pailazoarekin izutu den haurraren negarrean nago,
hogei urte geroago ere.

*Gogo!*

Ene urratsen doinua
ez da urtaro bat.

*Baina ez zuen inork ikusi*
*ja*
*ez zen inor enteratu*
*jo*
*ez zuen axola*
*kha!*

Elurra banaiz ere,
nire urratsen doinua
ez da urtaro bat.

**—6—**

Ospa egin nuelako behar dut ospatu.

*Ospa!*

Ospa egin nuelako topatu nuen
Eusropa.

*Ospea!*

Sudur gorria.

*Ospela!*

Eusroparen erdian galduta nengoelarik
gelditu zitzaidan bihotza.

*Non.*

Bularrean.

*Non.*

Taupada baten erdian.
Hilda nagoelako ez dut galtzeko astirik.

*Ospitalea!*

Porrotaren leinukoa naiz.

*Suizidatu duk ahotsa.*

Eta haren oroimena.
Eta zer?
Ospa egin nuelako ospatu ospea!

*Ospatu!*

Garaipen oro den porrota goratu.

*Suizidatu duk isiltasuna.*

Porrot oro den garaipena ernatu.

*Ospa ospea*
*non nora non*

Hemen. Hemen naiz.
Ahanzturak ehortzitakoekiko elkartasuna...

*Ospatu!*

Argazki galduetan harrapatutako uneak...

*Askatu!*

Heriotzak lapurtutako lagunak...

*Aipatu!*

Ezertarako balio ez badu ere
ospa egin nuelako ospatu,
porrotaren egutegiko jai egunetan...

*Ostatu!*

**—7—**

Nire lekuan ez dago niretzako tokirik.
Arrotza naiz etxean.

*Mai mao libi lai tao*

Arrotza zait habia.
Bertakoen erbestea da kultura
telebistan agertzen ez denean.

*Aiei! Aiei!*

Ezin diot inori ezer egotzi,
ozenago isiltzeko neure
ezintasunari ez bada bederen.

*Aiei! Aiei!*

Horregatik zeharkatu dut mundua,
baina azkenean
helburu posible bakarra
Eusropa suntsitzea zen.

*Mai mao oskarbi eta lao*

Ez dago bizi duzun horretatik ihes egiterik.
Ez dago zarena beste fikziorik.

*Mai mao libi lai tao*

Mundua zeharkatu nahian
munduak labankatu nau ni.

*Mai mao zauka-tzu tao*

Unibertsaltasunaren aitzakian, bulkada elitista.
Izerdia estaltzeko lurrina den artea,
berezko usaia ezkutatzen duen
kultur kolonizatzaileena.

*Aiei! Aiei!*

Ustela! kontatzekorik ez duena,
estetika eta jakituria goretsiz,
modako egileak aipatuz,
hustasuna bete nahi duenean.

*Kexu haiz,*
*Aiei! Aiei!*

Kiratsa! iraultzaren aitzakian,
oilasko hegoak astintzen dituena,
norbera den mundua aldatzeko gai ez denean
kutsadura eder litekeen horretan.

*Ez duk aitzakiarik.*
*Galdu haiz.*

*Ito haiz.*
*Mutu.*

Eusropan galdu nuen helmugen zergatia,
erakusleihoetan isuri nuen
manikien odola.

*Mai mao living in vao*

Ene manikien odol nirea.
Banoa.

*I have gorosti espero*

Zer komunikaturik ez denean
publikoa soberan da.
Banator.

*I have living in bero*

Norena da jendea?
Banoa.

*I have a lot of klero*

Norena naiz ni?
Banator.

*Zugana urdina ernoff*

Subentzioak eskatu ditut
nire odolarekin senda nazaten.

*Zugana living in yo*

Eta hala ere.

*Zugana apurtu lisboa*

Ez naiz errepide bat.

*Zugana living in yo*

Europa ez da mundua.

*Laster tensando bestea*

Eusropan mintzo naiz
Europan nautenean ere.

*Laster tensando afera*

Poesiaz subentzionatuko dut Eusropa
behingoz leher dadin.

*Laster laster laster*
*zu zara nire bestea*

Bai.
Neure tokia aurki dezadan neure lekuan.

*I have a lot of ni ni*
*without zu*

Ni

*Hoa. Hator. Hoa. Kha.*

Elurra ari du pailazoen eta bufoien gainean.
Elurra ari du artearen bulegoetan.
Elurra ari du nire hankartean.
Elurra ari du.

*ELURRA naiz eta ELUR nago.*
*Beharrezkoa den ezer ez da beharrezkoa.*
*Beharrezkoa den ezer*
*ez da beharrezkoa den ezer bezain*
*beharrezkoa.*

Maitatuak izatea merezi duten gauza guztiak
maitatu nituen nik.
Desagertu egin naiz haietan.
Elurra naiz orain.
Baina oraindik gorria da nire sudurra,
ez dago sudur hau ustelduko duen hilobirik.

*Sudurra SUDURRA suDURRA!*
*Ase haiz.*
*Ito haiz.*
*Mintzo haiz.*
*Mutu.*

Bihotza dut aurpegian.
Entzun itzazue haren taupadak
elurra egiten duen urtaroetan.